

( 5+4 / 5+4 )

Es-ke-rrak zu ri, ne-re Jau - na: zoin mi - ra-ga - rri zuk e - gi - na

**Eskerrak zuri, nere Jauna :  
Zoin miragarri zuk egina.**

Zuk barnez barne dakizu, Jauna, nere berri,  
Bai ni noiz jeiki, ni noiz jarri.  
Ibil nadila, etzan nadila Zuk so neri :  
Beti dakizu nere berri.

Zuk nauzu egin eta zuk neri bihotz eman,  
Nere amaren sabelean.  
Eskerrak zuri : miragarriki naiz egina,  
Miragarria zure lana.

Ongi zinautan arima jada ezagutzen,  
Nere hezurak nun zer ziren,  
Denen ixilik egina izan naizenean  
Eta ontua lur barnean.